

LAN ATXIKIPENAK (Desgaitasuna duten langile aktiboak)

Desgaitasuna duten langile aktiboek artikuluko honen 1. apartatuan aipatutako atxikipen ehunekoaren taula orokorra aplikatuko zaie.

Taula orokorra aplikatuz ateratzen den atxikipen ehuneko horri eskala honetan ezarritako puntuak kenduko zaizkio, langilearen egoeraren arabera:

- a) Ehuneko 33ko edo gehiagoko eta ehuneko 65etik beherako desgaitasun maila duen langile aktiboa bada.
- b) Ehuneko 33 edo gehiagoko eta ehuneko 65 baino gutxiagoko desgaitasun maila duten langile aktiboak, mugikortasun urriko gabezia egoeran daudenak, halakotzat hartuta urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren (desgaitasun maila aitortzeko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena) Mugikortasun Jardueren Mugen (BLAM) azpibaremoan ehuneko 25eko edo gehiagoko azken mugikortasun muga lortzea.
- c) Ehuneko 65eko edo hortik gorako desgaitasun maila duen langile aktiboa bada.

URTEKO ETEKINAREN ZENBATEKOA (€)		DESGAITASUN MAILA	
ZENBATETIK	ZENBATERAINO	4.A) APARTATUA	4.B. APARTATUA ETA 4.C APARTATUA
0,00	25.040,00	9	12
25.040,01	32.120,00	7	12
32.120,01	47.140,00	6	10
47.140,01	55.850,00	5	10
55.850,01	79.550,00	4	8
79.550,01	120.120,00	3	6
120.120,01	187.400,00	2	5
187.400,01	hortik aurrera	1	3